



SAREAN IBILTZEN IKASTEN TAILERRA **6. MAILAKO GURASOEI ZUZENDUA.**

6. mailako guraso horiek:

Jakingo duzueenez, aurten zuen seme-alabekin “Sarean ibiltzen ikasten” tailerra egingo dugu. Tailer honen helburu nagusia bizitza digitalerako trebetasunak lantzea da. Egun internet eskura dute eta modu seguru eta arduratsuan ibiltzeko tresnak ematea ezinbestekoa da.

Honetarako, jadanik galdetegi bat bete dute eta hemendik kurtsoa bukatu arte hiru saio egingo dugu.

- Lehena jadanik egin dugu, nabigazio segurua, Hatz-marka digitala eta baloreak (errespetua eta ardura) landu ditugu.
- Apirila aldera, Datuen Babeserako legea, Nortasun digitala, Pribatutasuna/segurtasuna, sare sozialak eta blogak.
- Eta maiatzerako, Bideojokuak eta arriskuei nola egin aurre ikusiko dugu.

Oso garrantzitsua da gurasoen esku hartzea. Hau dela eta, tailerra ere proposatzen dugu 6. mailako gurasoentzat. Alde batetik, galdetegi bat pasa zaizue guztiei tutoreen bidez, eta bestetik, tailer berbera planteatzen dugu. Gaiak guri egokituta daude.

Tailerrera nahi duena apunta daiteke. Hiru saio izango dira: apirilean eta maiatzean.

Partaideak: 6. mailako gurasoei zuzendua.

Ordua eta egunak: 2016.eko apirilaren 14an eta 21an eta maiatzaren 5ean, 17:00etatik 19:00etara. Osteguna.

Taldeak: Saioak elkarren osagarriak dira. Beraz, saio guztietan parte hartzea zuzenena da.

Metodologia: aktiboa, norbera zein taldeka parte hartuz.

Izena emateko epea: apirilaren 8ra arte.

Izena emateko: Izena emateko orria bete, ikastolako Atezaintzan dagoen orrian.

Tailerra nahiz materialak doakoak dira.